

Zer da Europako Esparrua?

BOLOGNA EZ DA BOLOGNA, bere benetako izena Goi Mailako Hezkuntzako Europako Esparrua da eta Europako unibertsitate guztiak ikasleak eta irakasleak Europako Unibertsitate zentro guztietatik askatasunez mugitu ahal izateko egin duten ahalegin handi bat da.

EUROPAKO ESPARRUA EZ DA UNIBERTSITATEAREN EZKUTUKO PRIBATIZAZIOA, unibertsitateari enpresa pribatua hurbiltzen saiatzen da soilik (eta alderantziz), ikasketak gizartearen benetako beharretara bideratuta egon daitezen eta enpresak, ikasketa batzuk finantzatuz, lehiakortasun maila berriak ere eskuratzeko.

EUROPAKO ESPARRUAK EZ DU GAUR EGUN ESKAINTZEN DIREN IKASKETAK KENTZEA EKARRIKO. Gaur arte egin izan diren ikasketek existitzen jarraituko dute, baina unibertsitatearen egitura berrira egokituko dira.

EUROPAKO ESPARRUAREKIN BATERA EZ DATOR TASEN IGOERA MASIBO BAT, izan ere, unibertsitateak berak dira tasak gobernuak ezartzen dituen muga batzuen barruan ezartzen dituztenak, hau da, KPIaren igoeraren arabera, eta ez da inoiz ere planteatu parametro horiek berrikustea.

EUROPAKO ESPARRUAK EZ DU MASTERRAK IKASTEA ZAILDUKO, aurrerantzean master ofizialek prezio publikoa izango baitute, gaur egungo prezio garestiegietatik urrun.

EUROPAKO ESPARRUAK EZ DU UNIBERTSITATERA SARTZEA ZAILTZEN, izan ere, unibertsitateko sarrera proba berriak ikasleei zein ikasgaiko azterketa egin nahi duten erabakitzeke aukera ematen die, nota igotzeko aukera daukate, etab.

EUROPAKO ESPARRUAK EZ DU GELA BAKOITZEKO IKASLE KOPURUA AREAGOTUKO, alderantziz, izan ere, irakaskuntza metodologia berrian ikaslea eta irakaslearen arteko parte-hartzea eta hurbiltasuna bilatzen da.

EUROPAKO ESPARRUAK EZ DU ESAN NAHI EGUNERO ZORTZI ORDUZ ESKOLAK EMATEN ETA IKASTEN IGARO BEHAR DIRENIK: ECTS kreditu sistema berriarekin, ez da eskolan bertan igarotzen den denbora soilik zenbatzen, baita norbere kabuz ikasten, ikertzen... emandako denbora ere. Horrek ez du esan nahi eskola-ordu gehiegiko egunak egongo direnik.

EUROPAKO ESPARRUAK EZ DITU IKASKETAK OPARITUKO, Unibertsitatea ez da errazagoa izango, desberdina baizik, pedagogikoa, ikaslearekiko hurbilagoa... baina ikasketek betidanik izan duten kalitatea eta zorroztasuna mantenduko da.

info gehiago: www.subeteaeuropa.org www.faest.org

